

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5979

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 16koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Granja Uriagereka SL enpresak Mungiako udalerrian sustatzen duen arrautzak ekoizteko jarduerari dagokion ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu duen proiektua, eta proiektuak berak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko azterlana, jendaurrean jartzen duena.

Poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen xedea atmosferaren, uraren eta zoruaren poluzioa ekiditea da, eta hau posiblea ez denean, murriztu eta kontrolatzea. Horrela poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuko sistema bat ezartzen du, ingurumena bere osotasunean babesteko.

Poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak ezarritakoari jarraituz, instalazioen eraikuntzak, muntaiak, ustiaketak edo lekualdaketek, eta baita funtsezko aldaketek ere, ingurumeneko baimen bateratua behar dute, baldin eta lege horren I. eranskinean jasota badaude. Ingurumeneko baimen bateratuaren helburua araua bete behar duten instalazioek bere xedea bete dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea da, hain zuen, baimena ematerakoan parte hartu behar duten Herri Administrazio desberdinen lankidetzan bermatuko duen eta hiritarren administrazio beharrak arintzen dituen prozedura baten bitartez gauzatuko dena.

Proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikulua ezarritakoari jarraituz, proiektuek, publiko zein pribatu izan, obrak, instalazioak edo aipatutako I. eranskinean jasotako edozein jarduera burutzeko, ingurumenean izan dezaketen eraginaren ebaluazioa behar dute, legean adierazitako moduan eginda.

Ingurumen organo honetan izapideak hasi dira Granja Uriagereka SL enpresak Mungiako udalerrian sustatzen duen arrautzak ekoizteko proiektuari dagokion ingurumeneko baimen bateratua lortzeko eta proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko, proiektua poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean eta proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotzen baita.

Ingurumeneko baimen bateratua lortzeko aurreikusten den prozeduraren arabera, eskariarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa osatu ondoren, jendaurrean jarri behar da gutxienez 30 eguneko epean.

Proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak eta xedapen hori garatzeko Arautegia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak aurreikusten duten prozeduraren arabera ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jarri behar da.

Poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera Autonomia Erkidegoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko jardunak, derrigorrezkoa direnean eta eskumena

Autonomia Erkidegoari dagokionean, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran barneratzeko.

Ondorioz, poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak ezarritakoari jarraituz, Granja Uriagereka SL enpresak Mungiako udalerrian sustatzen duen arrautzak ekoizteko proiektua, eta proiektuak berak ingurumenean duen eragina ebaluatzen azterlana, jendaurrean jarri behar dira.

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra; poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzen Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; xedapen hori garatzeko Arautegia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua; herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta oro har eta bereziki aplikagarri den araudiak xedatutakoari atxikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Granja Uriagereka SL enpresak Mungiako udalerrian sustatzen duen arrautzak ekoizteko proiektua, eta proiektuak berak ingurumenean duen eragina ebaluatzen azterlana jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 30 egun balioduneko epean. Epe horretan bidezko iritzitako arrazoibideak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektua eta proiektuak berak ingurumenean duen eragina ebaluatzen azterlana Eusko Jaurlaritzako Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz), bai eta Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoan (General Concha, 23-7. solairua, Bilbao).

Era berean, adierazitako dokumentazioa hiritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako espedientea Mungiako Udalari bidaliko zaio, horrek espedientea erakusteko, jendaurrean jartzeko epean.

Era berean, adierazitako dokumentazioa Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailearen web orrialdean (www.ingurumena.ejgv.euskadi.net) izango da, hiritarrek errazago eskura dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 16a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.^a ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.